

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Elorrioko Udala**

2020ko maiatzaren 29ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren laburpena, 2020an Elorrioko elkarteetako eta merkataritza-ostalaritzako hizkuntza-paisaia euskaraz jartzeagatik dirulaguntza deitzen dueña. BDNS (Ident.): 509153.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, testu osoa Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. — Onuradunak

Establezimendua Elorrioko kokatuta dituzten merkatariek, ostalariek edota zerbitzu enpresetako arduradunek, zein Elorrioko Elkarte Udal Erregistroan izena eman duten Elorrioko Elkarte guztiek eskatu ahal izango dute dirulaguntza; beti ere, 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Orokorra, 13. artikuluan edo Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorra 10. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean ez badaude.

Bigarrena. — Dirulaguntza ematearen xedea

Elorrioko elkarteetako eta merkataritza-ostalaritzako hizkuntza-paisaia euskaraz jartzeagatik diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea da.

Hirugarrena. — Oinarri araupetzaileak

Udalbatza Osoak 2010eko otsailaren 11n egin zuen bilkuran Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorra onartu zuen (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2010/05/10). Ordenantza hori udalbatzaren erabakiz aldatu zen 2011ko abenduaren 28an (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2011/02/10).

Dirulaguntzaren berriazko oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Elorrioko Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.elorrio.eus.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Diru-laguntza honetarako kreditu erabilgarria 2.000,00 eurokoa da. Gastu hau 2020 ekitaldiko aurrekontuko 3350.481.11 «Euskara taldeen ekintzak» diru-ataletik ordainduko da.

Bosgarrena. — Eskariak aurkezteko epea

Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean eskabideak aurkezteko epea 2020ko urriaren 15ean amaituko da. Aurkeztu eta onartutako eskabideak 2020ko ekitaldian ordainduko dira.

Elorrioko Udala, 2020ko ekainaren 5ean. — Alkatea, Idoia Buruaga Barcena